

## Kutxabankek txirrindularitzako Euskadi Fundazioaren lankide berria

**2024ko uztailaren 19an.** Kutxabank Euskadi Fundazioaren lankidea izango da 2024an, gaur goizean bankuaren egoitzan egindako sinadura ekitaldian alde biek jakitera eman dutenez.

Honela, Kutxabanken marka ofiziala Euskaltel-Euskadiren elastikoaren aurrealdean ikusi ahal izango da, eta Fundazioaren erreferentziatzko lankidea izango da.

Kutxabankek eta Euskadi Fundazioak gertutasuna, konfiantza, talde-lana edo hobekuntza-espiritua bezalako balioetan oinarritzen den kirol-proiektu hau partekatzen dute. Beren helburua oinarritzko kirola, eta euskal txirrindularien artean prestakuntza eta talentua sustatzea da.

**Aitor Galdós, Euskadi Fundazioko presidentek** esan duenez "garrantzitsua da oso Kutxabank bezala lider den erakunde batek gure gazteen akademiatik abiatuta euskal txirrindularitza gorenera eramateko gurekin bat egitea. Zalantzarik gabe, harro sentiarazten gaitu Euskadi Fundazioaren alde egin duten apustua, azken batean 30 urte baino gehiagoko ibilbidea onestea baita. Konpromiso honek gure etorkizuna bermatzen du, egonkortasuna ematen digu, eta laguntza handia da aurrera-pausuak egiten jarraitzeko. Gainerako gure babesle eta laguntzaileekin, etorkizun oparoa lortzera bultzatzen gaitu. Hauek guztiak alboan ditugula, zalegoarekin batera, Euskadi Fundazioa etorkizuneko egoera eta erronketara egokitzen jarraituko dugu. Ongi etorri Kutxabank!".

**Kutxabankeko marketin-zuzendariak, Rafael Arberasek**, adierazi duenez, "sinatu dugun proiektua kirola ulertzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun balioetan oinarritzen da, hala nola, oinarritzko txirrindularitza sustatzea, elitera iritsi aurretik ezinbesteko urratsa izanik. Euskaltel-Euskadi erreferentea da bi arloetan, eta Kutxabankentzat pozteko moduko kontua da lana, esfortzua eta hobetzeko-grina bezalako balioak partekatzea".

Datorren **asteazkenean, uztailaren 24an** aurkeztuko da taldearen elastiko berria Gasteizko Artium museoan, Espainiako Vueltan taldea ordezkatzeko duten txirrindularien aurkezpenean.

### Sobre Kutxabank

Kutxabank es la entidad líder en Euskadi y Córdoba. Cuenta con cerca de 700 oficinas, la red de sucursales con mayor capilaridad en sus territorios de origen y una destacada presencia en Andalucía, Madrid y Catalunya. Con un equipo de más de 5.000 profesionales, Kutxabank es, según los supervisores europeos, el banco más solvente de nuestro sistema financiero y la tercera entidad con mejor perfil de riesgo de Europa.

---